# Beste Iragarki Ofizial Batzuk

**HERRIZAINGO SAILA**

IRAGARKIA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren, zehapen-espedienteak irekitzen dituzten Herrizaingo Saileko Segurtasun Sailburuordetzako ebazpenak jakinarazteko dena. 21573

IRAGARKIA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren irekitako zehapen-espediente hauetan Herritarren Segurtasunerako zuzendariak emandako Ebazpenak jakinarazteko dena. 21574

**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

IRAGARKIA, Merkataritza zuzendariak zehapen-prozedura hasteko 2004ko irailaren 22an hartutako erabakia José Alberto Amo Hidalgo jaunari jakinaraztekoa. 21576

# Otros Anuncios Oficiales

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones de la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Interior incoatorias de los expedientes sancionadores abajo indicados, con relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 21573

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones del Director de Seguridad Ciudadana de los expedientes que abajo se indican, incoados con relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 21574

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

ANUNCIO por el que se notifica a José Alberto Amo Hidalgo, el Acuerdo de Incoación de Procedimiento Sancionador, dictado el 22 de septiembre de 2004, por el Director de Comercio. 21576

# Xedapen Orokorrak

## OSASUN SAILA

## Zk-6086

AGINDUA, 2004ko azaroaren 22koa, Osasun sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira sinadura elektronikoaren erabilpen arauak, Euskadiko Osasun Sistemarekiko bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen bidezko harremanetarako.

Informazioaren Gizarteko Euskadi Planak, Edukien eta Zerbitzuen arloari dagokionez, e-Salud jarduera eremua aztertzen du, helburutzat hartuz euskal herritarren eskura hainbat zerbitzu jartzea, teknologia berrien aplikazioaren bitartez biztanleria-pazientea-Administrazioa erlazioan hobekuntza bat ekarriko dutenak.

e-Salud deritzon jarduera eremu honetan, lehentasuneko helburuen artean kokatzen da Osasun Txartelaren ezarpena, zeinak, ziurtapen sistema bat dela medio, Administrazio Sanitarioarekiko harremanak artikulatzea ahalbidetuko baitu, identifikazio eta transakzio

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## N°-6086

ORDEN de 22 de noviembre de 2004, del Consejero de Sanidad, por la que se establecen normas sobre el uso de la firma electrónica en las relaciones por medios electrónicos, informáticos y telemáticos con el Sistema Sanitario de Euskadi.

El Plan Euskadi en la Sociedad de la Información, en relación al área de Contenidos y Servicios, contempla el ámbito de actuación e-Salud con el objetivo de dar acceso a la ciudadanía vasca a una serie de servicios que proporcionen un alto valor añadido en la relación ciudadanía-paciente-Administración a través de la aplicación de las nuevas tecnologías.

En este ámbito de actuación, e-Salud, se establece como una línea de acción preferente la implantación de una Tarjeta Sanitaria que posibilite articular las relaciones con la Administración Sanitaria incorporando un sistema de certificación que permita la identificación y

seguruak eta harremanetarako erraztasun berriak bermatuz.

Horrela, Osasun Sailburuaren 2001eko uztailaren 11ko Aginduaren bidez, prestazio sanitario publikoen, aseguramendu sanitarioaren eta izaera prebentiboko informazio sanitarioaren arloko prozedura jakin batzuen tramitazio telematikorako proiektu pilotua argitaratu zen, hori guztia, teknologia hauen ezarpenari buruzko esperientzia hartzeko eta izango zuten inpaktua ezagutzeko helburuaz, Osasun Txartel Elektronikoari hedadura handiagoa eman aurretik.

Proiektua martxan jartzeak komunikazio eredu baten sendotzea suposatu du, hots, Euskadiko Sistema Sanitarioaren arloan behar dugun modernotasun printzipioarekin bat datorren eredua eta biztanleriaren premietara egokitzeko sortua, horixe baita egiazki ereduaren azken xedea.

Informazioaren gizartea deritzon honetan etengabe gertatzen diren berrikuntzei eta aldaketei harrera egiteko prest egote honek, noski, malgutasuna eskatzen du tresna juridikoak egoera berrietara azkar egokitu ahal izateko.

Agindu berri honen bitartez Eskura proiektua egokitu nahi da bai marko legal berri honetara eta bai orain amaitzear dagoen proiektu pilotua ebaluatu ondoren sumatu diren premietara.

Fase berri honetan, transakzio telematikoetako segurtasuna bermatuko duten tresnen hobekuntza lortu nahi da, bai eta ekitate konpromisoaren konplimendua ere teknika elektronikoen inplementazioaren bidezko baliabide sanitarioen eskuragarritasunean.

Teknika elektroniko horiek, batetik, zerera egokitzen dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, 45. artikuluan ezarritako exijentzietara, eta, bestetik, 2003ko maiatzaren 13ko Ebazpenak, Informatika eta telekomunikazio zuzendariarenak, dioenaren araberakoak dira. Ebazpen horrek EAEko Administrazioak prozeduren izapide telematikoetan erabili beharreko izaera horizontaleko aplikazio elektroniko, informatiko eta telematikoak onesten ditu.

Behin Eskura ebaluatu ondoren, hau da, Osasun Txartel Elektronikoaren proiektu pilotua, Gurutzetako Ospitaleko jaioberrien eta berauen familiartekoen kolektiboan gauzatu dena, eta emaitza onak lortu direla ikusirik, orain Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztietara hedatzea planteatzen da, Euskadi Plana Informazioaren Gizartean garatzeko eta populazioa Administraziora hurbiltzeko estrategien inplementazioarekin aurrera jarraitzeko helburuarekin. Honela eszenatoki berri bat sortzen da herritarren eta Euskadiko Sistema Sanitarioaren Administrazioaren arteko harremanetan, Osasuna Eskura izenpean telematikoki eskaintzen den zerbitzu multzo batean gorpuzten dena.

unas transacciones seguras así como nuevas facilidades de relación.

Así, mediante la Orden de 11 de julio de 2001, del Consejero de Sanidad, se hizo público el proyecto piloto para la tramitación telemática de determinados procedimientos en materia de prestaciones sanitarias públicas, aseguramiento sanitario e información sanitaria de carácter preventivo, todo ello, con el objeto de adquirir experiencia sobre la implantación de estas tecnologías y conocer su impacto previo a una extensión más amplia de la Tarjeta Sanitaria Electrónica.

La puesta en marcha del proyecto ha supuesto la consolidación de un modelo de comunicación consecuente con el principio de modernidad que se precisa en el ámbito del Sistema Sanitario de Euskadi y destinado a ser adaptado a las necesidades de la ciudadanía, verdadera razón de ser del modelo.

Como no puede ser de otra forma, esos aspectos de adaptabilidad y recepción a las innovaciones y cambios que de forma continua se vienen sucediendo en la denominada sociedad de la información, precisa de la agilidad suficiente para acomodar los instrumentos jurídicos a las nuevas situaciones.

Mediante esta nueva Orden se pretende la adecuación del proyecto Eskura tanto a este nuevo marco legal como a las necesidades observadas tras la evaluación del proyecto piloto que ahora finaliza.

En esta nueva fase, se persigue la mejora de las herramientas que garantizan la seguridad jurídica en las transacciones telemáticas y la garantía de los compromisos de equidad en el acceso a los recursos sanitarios a través de la implementación de las técnicas electrónicas.

Estas técnicas electrónicas se adecuan a las exigencias establecidas en el artículo 45 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y se ajustan a la Resolución de 13 de mayo de 2003, de la Directora de Informática y Telecomunicaciones, por la que se aprueban las aplicaciones electrónicas, informáticas y telemáticas de carácter horizontal que se utilizarán en la tramitación telemática de los procedimientos de la Administración de la CAPV.

Una vez evaluado Eskura, proyecto piloto de Tarjeta Sanitaria Electrónica en el colectivo de recién nacidos en el Hospital de Cruces y familiares de los mismos, con resultados satisfactorios, se plantea su extensión al conjunto de la ciudadanía de la Comunidad Autónoma de Euskadi al objeto de continuar con la implementación de las estrategias de desarrollo del Plan Euskadi en la Sociedad de la Información y de acercamiento de la Administración a la ciudadanía. Surge de esta manera un nuevo escenario de relación entre la ciudadanía y la Administración del Sistema Sanitario de Euskadi que se concreta en un conjunto de servicios ofrecidos telemáticamente bajo la denominación Osasuna Eskura.

Ikuspegi tekniko batetik, Osasun Txartel Elektronikoa mantendu egiten da zerbitzu sanitarioetarako sarbide giltza gisa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioko, ekainaren 26ko 8/1997 Legean zehazten denaren arabera, pertsona erabiltzaileak identifikatzeko baliabide gisa, eta urriaren 4ko 252/1988 Dekretuari jarraiki, zeinaren bidez ezartzen baita Osasun Txartel Indibidualaren erabilpena. Orain, Osasun Saila konpromiso handiago bat hartzera doa ziurtapen politiken aplikazioan (onarturiko ziurtagiria), beharrezko izanez gero, Erregistro Entitatearen papera ere bete dezakeelarik. Bestalde, Agindu honen bidez, ziurtapen sistema aldatzen da, sinadura elektronikoaren prozedura sartzen baitu, bai eta ziurtapen entitatearen funtzioak beteko dituen entitatea ere, Sociedad Ziurtapen eta Serbitzu Enpresa (Izenpe) S.A. Azkenik, zenbait proiekturen inplementazioa erraztuko duten aurreikuspen batzuk sartzen dira, esate baterako, errezeta elektronikoa, aurretiazko borondateen dokumentuen kudeaketa Euskadiko Sistema Sanitarioaren barruan eta Ezintasun Iragankorreko dokumentuen kudeaketa, hori guztia, Informazioko Gizartearen zerbitzuetako baliabide teknikoen arabera bermatua.

Amaitzeko, teknika telematikoen erabilpenari dagokionez, interes berezia jarri da herritarren eskubideak babesteko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen denaren arabera, zeina Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari dagokion, eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legea erabat aintzat hartuz.

Beraz, urriaren 4ko 252/1988 Dekretuko Lehenengo Azken Xedapenean ezartzen diren eskumenen arabera (Dekretu horrek xedatzen du Osasun Txartel Indibidualaren erabilpena) eta azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuari jarraiki (horrek ezartzen ditu Osasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala eta Informazioaren Gizarteko Euskadi Plana) honakoa

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Helburua eta aplikazio eremua.

1.– Agindu honen helburua bideratze telematikoko prozedura ezartzea da, jarraian aipatzen diren ekintzetarako:

a) Urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuko 5. artikuluan aurreikusten den gastu sanitarioen ordainketa. Dekretu horretan xedatzen dira Osasun Sistema Nazionaleko prestazio sanitarioen antolamendua eta Euskadiko Sistema Sanitarioari ez dagozkion zentroetan asistentzia emateko aurretiazko baimenak eta aginduak.

Desde una perspectiva técnica, se mantiene la Tarjeta Sanitaria Electrónica como llave de acceso a los servicios sanitarios en los términos expuestos en la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en su caracterización de instrumento de identificación de las personas usuarias conforme al Decreto 252/1988, de 4 de octubre, por el que se implanta el uso de la Tarjeta Individual Sanitaria. Ahora bien, el Departamento de Sanidad va a adquirir un mayor compromiso en la aplicación de las políticas de certificación (certificado reconocido), pudiendo desempeñar, en su caso, el papel de Entidad de Registro. Por otra parte, mediante la presente Orden se modifica el sistema de certificación que incorpora el procedimiento de firma electrónica al igual que la entidad que ejercerá las funciones de entidad de certificación, la Sociedad Ziurtapen eta Serbitzu Enpresa (Izenpe), S.A. Por último, se incorporan nuevas previsiones que facilitan la implantación de diferentes proyectos como la receta electrónica, la gestión de los documentos de voluntades anticipadas en el Sistema Sanitario de Euskadi y la gestión documental de la Incapacidad Temporal, todo ello, soportado conforme a los recursos técnicos de los servicios de la sociedad de la información.

Finalmente, respecto a la utilización de las técnicas telemáticas, se ha puesto especial interés en la garantía de los derechos de la ciudadanía, de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación sanitaria de Euskadi.

Por lo expuesto, en virtud de las facultades establecidas en la Disposición Final Primera del Decreto 252/1988, de 4 de octubre, por el que se implanta el uso de la Tarjeta Individual Sanitaria y del Decreto 268/2001, de 6 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad así como al Plan Euskadi en la Sociedad de la Información,

DISPONGO:

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto y ámbito de aplicación.

1.– La presente Orden tiene por objeto establecer el procedimiento de tramitación telemática de:

a) La acción de reintegro de los gastos sanitarios prevista en el artículo 5 del Real Decreto 63/1995 de 20 de enero, sobre ordenación de prestaciones sanitarias del Sistema Nacional de Salud y autorizaciones previas y órdenes de asistencia en centros ajenos al Sistema Sanitario de Euskadi.

b) Prestazio ortoprotesikoaren ordainketa, laguntza ekonomikoaren eskabidea edo zuzeneko pagamendua kanpoko protesi, gurpil aulki, ortesi eta protesi bereziei dagokiena, urtarrilaren 22ko 1/1997 Dekretuan xedatzen denarekin bat etorriz.

c) Bigarren iritzi mediko bat eskatzeko eskubidearen erabilpenaren erregulazioa, indarrean dagoen legeriaren arabera.

d) Familiako medikuaren hautaketa.

e) Osasun Txartel Indibidualaren eskabidea edo asegurамendu sanitarioko datuak aldatzeko eskabidea.

f) Uztailaren 18ko 175/1989 Dekretuaren 1. artikuluko f), n), q) eta r) paragrafoetan onarturiko eran formulatuak dauden zerbitzu sanitarioen funtzionamenduari buruzko kexu, erreklamazio edo iradokizunen kudeaketa. Dekretu horretan onartzen da Osakidetza / Euskal Osasun Zerbitzuko paziente eta erabiltzaileen Eskubide eta Betebeharren karta.

g) Lehen Mailako Atentzio zerbitzuetarako aldez aurreko hitzordua.

Aipatu prozedura era berean aplikatzen zaio jarraian aipatzen diren prozeduren arau erregulatzaileetan aurreikusitako izapideak bide telematikoaz gauzatzeari:

– Eskabide, agiri eta dokumentazio osagarriaren aurkezpena.

– Informazioaren, dokumentazio osagarriaren edo konponketaren errekerimendua, eta errekerituriko informazioaren, dokumentazio osagarriaren edo konponketaren igorpena.

– Beste Administrazio batzuetan eragina duten ziurtagiriak eskatzea eta bideratzea, erabiltzailearen aldez aurreko baimenarekin.

– Ondorioztatzen den jakinarazpena edo ebazpena.

– Errekurtsoak edo erreklamazioak aurkeztea, dagokion kasuan.

– Aurkeztutako errekurtsoen ebazpena.

2.– Agindu honen helburuetako bat da, era berean, izapideak arautzea, arlo hauei buruzko informazioa lortzeko: osasuna eta bizi ohiturak, haurtzaroko txertoak, programa prebentiboak eta komunitarioak, eta, estaldurak eta prestazio sanitario publikoak, bai eta gertaera asistentzialak, ezgaitasun iragankorrak eta aseguramendu publikoko sisteman barne hartzen diren beste informazio batzuk ere.

Aipatu izapideak honako hauei aplikatzen zaizkie:

– Eskabide, agiri eta dokumentazio osagarriaren aurkezpena.

– Informazioaren, dokumentazio osagarriaren edo konponketaren errekerimendua, eta errekerituriko informazioaren, dokumentazio osagarriaren edo konponketaren igorpena.

– Ondorioztatzen diren jakinarazpenak.

b) La acción de reembolso, solicitud de ayuda económica o abono directo de la prestación ortoprotésica relativa a prótesis externas, sillas de ruedas, órtesis y prótesis especiales de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 1/1997, de 22 de enero.

c) La regulación del ejercicio, por idéntica vía, de los derechos a solicitar una segunda opinión médica conforme a la legislación vigente.

d) La elección de médico de cabecera.

e) La solicitud de la Tarjeta Individual Sanitaria o modificación de los datos de aseguramiento sanitario.

f) La gestión de quejas, reclamaciones o sugerencias sobre el funcionamiento de los servicios sanitarios que se formulen en los términos reconocidos en el artículo 1, párrafos f), n), q) y r) del Decreto 175/1989, de 18 de julio, por el que se aprueba la carta de Derechos y Obligaciones de los pacientes y usuarios del Servicio vasco de salud / Osakidetza.

g) La cita previa para los servicios de Atención Primaria.

Dicho procedimiento se extiende a la realización por vía telemática de los trámites previstos en las normas reguladoras de los citados procedimientos que a continuación se relacionan:

– Presentación de peticiones, solicitudes y documentación complementaria.

– Requerimientos de información, documentación complementaria o subsanación, y remisión de la información, documentación complementaria o subsanación requeridas.

– Petición y tramitación de certificados obrantes en otras Administraciones previo consentimiento del usuario.

– Comunicación o resolución a que den lugar.

– Interposición de recursos o reclamaciones, en su caso.

– Resolución de los recursos interpuestos.

2.– Es objeto de esta Orden, asimismo, la regulación del trámite de obtención de información sobre salud y hábitos de vida, sobre vacunaciones infantiles, sobre programas preventivos y comunitarios y sobre cobertura y prestaciones sanitarias públicas, incluso, sobre los propios episodios asistenciales, de incapacidad temporal y otras informaciones integradas en el sistema de aseguramiento público.

Dicho trámite se extiende a:

– Presentación de solicitudes y documentación complementaria.

– Requerimientos de información o documentación complementaria y remisión de la información o documentación complementaria requeridas.

– Comunicaciones a que den lugar.

3.– Halaber, beste prozedura hauek arautzen dira: errezeta elektronikoaren bidezko prestazio farmazeutikoaren kudeaketa, aurretiazko borondateen erregistrorako sarbidea eta komunikazio telematikoa eta Ezgaitasun Iragankorreko kudeaketa dokumentazioaren bideratze telematikoa, agindu honen 2., 3. eta 4. kapituluetan, hurrenez hurren, ezartzen denaren arabera.

*2. artikulua.–* Prozeduraren alderdi orokorrak.

1.– Dekretu honen aplikazio eremuan barne hartzen diren jardueren benetakotasun eta osotasuna, 5.4 eta 12. artikuluetan aurreikusten diren kasuetan salbu, onarturiko sinadura elektronikoaren bidez bermatuko dira, sinadura hori, Osasun Txartel Elektronikoan itsatsiriko ziurtagiri elektroniko batek sortua izango delarik.

2.– Aplikazio informatikoen erabilpenari dagokionez, honako hauek bermatu behar dira:

a) Berauetan dauden datu eta informazioetarako sarbidea eta erabilpena horretarako baimenduak dauden pertsonei mugatzea.

b) Datuen eta informazioen aldaketak edo galerak saihestea eta komunikazioen interzeptazioak eragoztea.

c) Prozesu informatikoen babesa baimendu gabeko manipulazioen aurrean.

3.– Baliabide telematikoen erabilpenak inoiz ere ez die eragingo inolako murrizpen edo bereizketarik erabiltzaileei zerbitzu publikoen prestazioez gozatzeko orduan edo edozein jarduera edo prozedura administratibo baliatzeko orduan.

4.– Era telematikoan bidali ezin daitekeen dokumentazioa aplikatzekoa den prozeduraren araudian ezartzen denari jarraiki egingo da.

*3. artikulua.–* Izapide telematikorako sarbidea.

1.– Agindu honetan ezartzen diren eremuetan, Euskadiko Sistema Sanitarioarekin izapide telematikoa gauzatzeko interesa daukaten pertsonek Ziurtagiri elektroniko onartua eduki behar dute, Osasun Txartel Elektronikoan sarturik, Lege honen aplikazio efekturako ezartzen denaren eta I Eranskinean jasota dagoenaren arabera.

Ez da beharrezkoa izango ziurtagiria erabiltzea interes orokorreko informaziorako atzipenerako.

2.– Erabiltzailea adin txikikoa edo ezgaitua den kasuetan, Euskadiko Sistema Sanitarioko Aseguratu Ordezkatuaren Ziurtagiriak jaulkiko dira, Sinadura elektronikoko Legearen 11. artikuluan xedatzen denari jarraiki.

3.– Halaber, onartu ahal izango da harreman telematikoa gorago aipatu diren erabilpenetarako, Osasun Sistema Nazionalaren edo Europako Elkarteko beste Sistema Sanitario batzuen eremuan beste agintari sanitario batzuek jaulkitako osasun txartel elektronikoei ge-

3.– Igualmente, se regula el procedimiento de gestión de la prestación farmacéutica a través de la receta electrónica, la gestión de acceso y comunicación telemática con el registro de voluntades anticipadas y la tramitación telemática de la documentación de gestión de la Incapacidad Temporal, conforme a lo establecido en los capítulos 2, 3 y 4, respectivamente, de la presente Orden.

*Artículo 2.–* Aspectos generales del procedimiento.

1.– La autenticidad e integridad de las actuaciones incluidas en el ámbito de aplicación de la presente Orden, con excepción de los supuestos previstos en los artículos 5.4 y 12, se garantizarán mediante el empleo de la firma electrónica reconocida generada con un certificado electrónico reconocido incorporado a la Tarjeta Sanitaria Electrónica.

2– Deberá garantizarse en relación con el uso de las aplicaciones informáticas:

a) la restricción de su utilización y del acceso a los datos e informaciones en ellos contenidos a las personas autorizadas.

b) La prevención de alteraciones o pérdidas de los datos e informaciones e interceptación de las comunicaciones.

c) La protección de los procesos informáticos frente a manipulaciones no autorizadas.

3.– La utilización de medios telemáticos en ningún caso podrá implicar la existencia de restricciones o discriminaciones de cualquier naturaleza en el acceso de la ciudadanía a la prestación de servicios públicos o a cualquier actuación o procedimiento administrativo.

4.– La documentación no susceptible de remitirse telemáticamente se cursará con arreglo a lo establecido en la normativa de procedimiento que sea de aplicación.

*Artículo 3.–* Acceso a la tramitación telemática.

1.– Las personas interesadas en realizar la tramitación telemática con el Sistema Sanitario de Euskadi en los ámbitos establecidos en la presente Orden deberán disponer del Certificado electrónico reconocido, incorporado a la Tarjeta Sanitaria Electrónica, emitido conforme a lo que se establezca al efecto en aplicación de esta Orden y en lo recogido en el Anexo I.

No será necesaria la utilización del certificado cuando se trate del acceso a información de interés general.

2.– En los casos de minoría de edad o incapacitación de la persona usuaria, se emitirán Certificados de Asegurado Representado del Sistema Sanitario de Euskadi, en los términos recogidos en el artículo 11 de la Ley de firma electrónica.

3.– Asimismo, se podrá admitir la relación telemática para los usos anteriormente reseñados con otros certificados electrónicos incorporados a tarjetas sanitarias electrónicas emitidas por otras autoridades sanitarias tanto en el ámbito del Sistema Nacional de Salud co-

hitutako beste ziurtagiri elektroniko batzuekin. Horretarako, behar diren lankidetza hitzarmenak adostu beharko dira Osasun Sailaren eta beste entitate batzuen artean.

4.– Izapideak bideratzeko, pertsona interesatuek helbide elektroniko hauetara jo beharko dute: www.ej-gv.net/eskura edo www.osasunaeskura.net.

*4. artikulua.–* Jakinarazpen telematikoa.

1.– Osasun Sailak Pertsona interesatuekin komunikatzeko bitarteko telematikoak erabiltzeak, betiere, 30/1992 Legeko 58 eta 59. artikuluetan, ekintza administratiboen jakinarazpena egiteko, ezartzen diren baldintzen konplimendua bermatuko du.

2.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.3 artikuluan xedatzen denaren ondorioetarako, datu basean grabaturik geratuko da zer egun eta ordutan dagoen erabilgarri jakinarazpena pertsona interesatuarentzat helbide elektronikoan, bai eta, dagokion kasuan, zer egun eta ordutan gertatu den eduki horretarako sartzea pertsona interesatuaren aldetik.

3.– Helbide elektronikorako sartzea egiteko, aurrena pertsona interesatuak identifikatu egin behar du, horretarako edukiko duen ziurtagiri elektronikoaren bidez.

*5. artikulua.–* Osasun Saileko erregistro telematikoa.

1.– Erregistro Telematikoa sortzen da euskarri informatikoan, eskabide, idazki eta jakinarazpenak jasotzeko eta igortzeko baldin, Agindu honetan xedatzen denaren arabera, izapide telematikoko objektu badira, eta betiere azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 39. artikuluan xedatzen denaren konplimendua bermatuko delarik.

2.– Erregistro Telematikoari esker, urteko egun guztietako hogeita lau orduetan aurkeztu ahal izango dira idazki eta jakinarazpenak.

Lanegunetan adierazitako epeen kontaketa ondorioetarako, jaiegun batean bidalitako idazki edo jakinarazpen baten harrera, hurrengo lehenbiziko laneguneko zero ordu eta bat segundoan egin dela ulertuko da.

3.– Erregistro Telematikoan eginiko oharpenak Erregistro Orokorrean informatikoki jasotzen direla bermatuko da, indarrean dagoen araudian xedatzen denari jarraiki.

4.– Eskabidea Erregistro Telematikoan jasotzen den unean pertsona igorleari aurkezpen agiria erakutsiko zaio, eta honek eskubidea edukiko du deskargatu eta beretzat gordetzeko.

Erregistro Telematikoko identitatea bermatuko da, Agindu honen II. eranskinean zehazten diren ezaugarriak dituen aplikazioan instalaturiko ziurtagiri elektronikoarekin sorturiko sinadura aurreratuaren bitartez.

mo en otros Sistemas Sanitarios de la Unión Europea. A tal efecto, se deberán celebrar los oportunos convenios de colaboración entre el Departamento de Sanidad y otras entidades.

4.– Para la realización de los trámites las personas interesadas deberán acceder a las direcciones electrónicas www.ej-gv.net/eskura o www.osasunaeskura.net.

*Artículo 4.–* Notificación telemática.

1.– La utilización por el Departamento de Sanidad de medios telemáticos como cauce de la comunicación con las personas interesadas garantizará en todo caso el cumplimiento de los requisitos establecidos por los artículos 58 y 59 de la Ley 30/ 1992 para la practica de la notificación de los actos administrativos.

2.– A los efectos de lo dispuesto en el artículo 59.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, quedará grabada en la base de datos la fecha y hora en que la notificación se encuentra accesible para la persona interesada en la dirección electrónica así como, en su caso, la fecha y hora en que se produzca el acceso a su contenido por parte de la persona interesada.

3.– El acceso a la dirección electrónica se realizará previa identificación de la persona interesada que deberá disponer a tal efecto del correspondiente certificado electrónico.

*Artículo 5.–* Registro telemático del Departamento de Sanidad.

1.– Se crea el Registro Telemático en soporte informático para la recepción y salida de solicitudes, escritos y comunicaciones que, en los términos regulados por la presente Orden, sean objeto de tramitación telemática, que garantizará en todo caso el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 39 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

2.– El Registro Telemático permitirá la presentación de escritos y comunicaciones todos los días del año durante las veinticuatro horas.

A efectos de cómputo de plazos señalados en días hábiles, la recepción de un escrito o comunicación en un día inhábil, se entenderá efectuada a las cero horas y un segundo del primer día hábil siguiente.

3.– Se garantizará la integración informática en el Registro General de las anotaciones efectuadas en el Registro Telemático, en los términos dispuestos en la normativa en vigor.

4.– En el momento de la recepción de la solicitud en el Registro Telemático se mostrará el recibo de presentación a la persona remitente, quien tendrá la opción de descargarlo y conservarlo en su poder.

Se garantizará la identidad del Registro Telemático mediante la firma avanzada generada con un certificado electrónico instalado en la aplicación con las características definidas en el Anexo II de esta Orden.

Agirian jasorik geratuko dira pertsona bidaltzailearen identifikazioa, sarrera erregistroaren zenbakia, izapidearen izena eta aurkezpeneko eguna eta ordua.

*6. artikulua.–* Dokumentuen artxibo eta zainketa.

1.– Teknika elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez sortuak izan diren dokumentu, idazki eta egintzak, eta bide horiek erabiliz gauzatuko diren izapideen euskarri direnak, izaera honetako euskarrietan eta dokumentua sortu zen formatu berean kontserbatuko dira, edo beste edozeinetan, baldin informazioaren identitatea eta osotasuna segurtatzen baditu, berau erreproduzitu ahal izateko.

2.– Dokumentuak gordetzen diren bitarteko edo euskarriek beren segurtasun neurriak eduki behar dituzte berorien osotasuna, benetakotasuna, kalitatea, babesa eta kontserbazioa bermatzeko, eta pertsona erabiltzaileen identifikazioa eta atzipenen kontrola segurtatuko dituzte.

3.– Pertsona interesatuek euskarri elektroniko, informatiko eta telematikoetan gordetako dokumentuetara izango duten sarbidea, 30/1992 Legeko 35. eta 37. artikuluetan xedatzen denari jarraiki arautuko da, eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzkoak, ezartzen duenaren arabera.

4.– Aipatu diren bitarteko edo euskarrietan jasotako dokumentuek dagokion espediente administratiboa osatuko dute, berorren osagai diren gainerako jarduerekin batera, zerikusirik ez daukalarik zein euskarritan dauden eginak edo zer aplikaziotan barne hartuak izan diren.

*7. artikulua.–* Datuen babesa.

1.– Agindu honen eremuan egiten den teknika elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilpenean, Administrazioak aintzat hartuko du honako hiru lege hauek ezartzen dutena: ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari dagokionak; abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzkoak; eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Titulartasun Publikoko Izaera Pertsonaleko Datuen Fitxategien eta Datuen Babeseko Euskal Agentziaren Sorkuntzari dagokionak.

2.– Pertsona interesatuak, Agindu honetan aurreikusitako prozedurak hasteko edo berorietan esku hartzeko, baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzen dituenean, baimendu egiten du eskabidearen izapiderako edo dagokion prozedurarako beharrezkoak diren izaera pertsonaleko datuen tratamendua.

II. KAPITULUA

ERREZETA ELEKTRONIKOA

*8. artikulua.–* Errezeta Elektronikoaren proiektua.

1.– Agindu honen bitartez prestazio farmazeutikorako Errezeta Elektronikoaren proiektua garatzen da eta

En el recibo se hará constar la identificación de la persona remitente, número de registro de entrada, denominación del trámite y fecha y hora de su presentación.

*Artículo 6.–* Archivo y custodia de documentos.

1.– Los documentos, escritos y actos que hayan sido producidos mediante técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas y den soporte a los trámites a utilizar por dichas vías se conservarán en soportes de esta naturaleza en el mismo formato a partir del que se originó el documento o, en otro cualquiera, que asegure la identidad e integridad de la información necesaria para reproducirlos.

2.– Los medios o soportes en que se almacenen documentos deberán contar con medidas de seguridad que garanticen la integridad, autenticidad, calidad, protección y conservación de los documentos y asegurarán la identificación de las personas usuarias y el control de accesos.

3.– El acceso por parte de las personas interesadas a los documentos almacenados en soportes electrónicos, informáticos o telemáticos se regirá por lo dispuesto en los artículos 35 y 37 de la Ley 30/1992 y por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal.

4.– Los documentos almacenados en los soportes y medios antes mencionados formarán parte del expediente administrativo correspondiente junto con el resto de actuaciones que formen parte del mismo, con independencia del soporte en que se hubieran realizado y su integración en las aplicaciones.

*Artículo 7.–* Protección de datos.

1.– En la utilización de técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas en el ámbito de esta Orden, la Administración respetará lo dispuesto en la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de carácter personal y la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

2.– Cuando la persona interesada utilice los medios electrónicos, informáticos o telemáticos para iniciar los procedimientos previstos en esta Orden o intervenir en ellos, consiente el tratamiento de los datos de carácter personal que sean necesarios para la tramitación de la solicitud y el procedimiento correspondiente.

CAPÍTULO II

DE LA RECETA ELECTRÓNICA

*Artículo 8.–* Proyecto Receta Electrónica.

1.– Mediante la presente Orden se desarrolla el proyecto de Receta Electrónica para la prestación farma-

zera dauka helburutzat, Osakidetza / Euskal Osasun Zerbitzuko pertsonal fakultatibo medikoak eginiko farmako preskripzioak bideratzea farmazia bulegoetan dagozkien dispentsatzeak gauzatzeko.

2.– Aplikazioaren barruti geografikoa Markina eta Basauriko San Migeleko osasun zentroen jarduera eremuetara mugatua geratzen da.

3.– Proiektu honen garapenean Osasun Txartel Elektronikoan sarturik eta onartuak dauden ziurtagiri elektronikoak erabiliko dira, Agindu honen I. kapituluan aurreikusten denaren arabera.

4.– Profesional sanitarioek errezeta bera emango die erabiltzaileei paper euskarrian, farmazia bulego dispentsatzailearen hautaketa errazteko helburuarekin.

5.– Errezeta medikoen 1910/1984 Errege Dekretuan eta Elkargo Ofizialen eta Osasun Sailaren artean adosturiko Hitzarmenean xedatzen denari jarraiki, errezeta elektronikoaren formatuan jasotzen diren datuak, gutxienez, paperezko errezetan ageri diren guztiak izango dira.

*9. artikulua.–* Errezeta Elektronikoaren bidezko prestazio farmazeutikoaren gestioa.

1.– Osakidetza / Euskal Osasun Zerbitzuko pertsonal fakultatibo medikoak eginiko preskripzioen gaineko informazioa Errezeta Elektronikoa basean barne hartuko da.

